



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko otsailaren 19a

24. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroan lagun egiteko animaliak babesteari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroan lagun egiteko animaliak babesteari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gida bat ezar dezan, arauk eta legeek hurrengan daukaten inpaktuaren ebaluazio-sistema erraztekoa. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak onetsia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Hondakinen Partzuergoak 2015etik gaur arte izandako egoera ekonomiko finantzarioaren bilakaerari eta etorkizunean jarraitzeko edo desagertzeko aurreikuspenari buruzkoa. Mariano Herrero Ibáñez jaunak egin du (8. or.).

- Galdera, Dia enpresaren Nafarroako plantillako lanpostuak mantentzeko eginen diren zuzemenei buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (8. or.).
- Galdera, jakiteko ea zertan den erabaki honen betetze-egoera: Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat egin dezan "Tasa arrosa" deiturikoak daukan eraginari. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako Fakultatea ezartzeari buruz Osasuneko ministroak egindako adierazpenei buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroaren merkataritza-balantzan, bertako enpresetan nahiz horien esportazioetan Brexitak izanen dituen ondorioak leuntzeko neurriei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, 2019-2020 ikasturterako Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eta Lehen Hezkuntzan aurrematrikula egiteko epetik heldu diren datuei eta horien balorazioari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, administrazioan euskarak duen erabilerari eta eskariari buruzkoa eta herritar guztiak administrazioan berdintasunez sartzeari begira diren mugei eta onetsitako hizkuntza planak funtzionarioen eskubideak ustez urratzeari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Musikako eta arte eszenikoetako katedradunen kidegoan sartzeko oposizio-deialdiaren balorazioari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Navarplumako enpresa batzordeak eskatutakoari dagokionez egindako edo aurreikusitako jarduketei buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (13. or.).
- Galdera, etxebizitza eskuratzeko EmanZipa eta DaVid programei buruzkoa. José Miguel Nuin Moreno jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, jakiteko ea egia ote den Nafarroako Segurtasun Eskolak Olatz-Subitzan (Galar Zendea) –Bocamina alderdian– erositako instalazioei buruz hedabide batek argitaratu duena. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, heldu den ikasturterako Haur eta Lehen Hezkuntzako aurrematrikulazio-eskabideei dagokienez ezagutu diren behin-behineko datuei buruzkoa. María Chivite Navascués andreak egin du (15. or.).
- Galdera, jakiteko ea zer aurreikuspen darabilen Gobernuak hezkuntza eta osasun departamentuetako plantillen hazkundeari eta egonkortasunari dagokienez. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (16. or.).
- Galdera, ikastetxeetan Skolae programa ematen den ordutegiaz gurasoei informatzeari uko egiteari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (16. or.).
- Galdera, jakiteko ea Osasuneko kontseilariak aurreikusten ote duen sendagileei entzutea edo haiekin bil-tzea. Sergio Sayas López jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren liburutegiek 2018ko udan izan duten ordutegiari buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko legelari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehia-keta bidez betetzeko. Gainditu duten izangaien zerrenda (18. or.).
- Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioko bi patronatukide izendatzea (18. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Legebiltzarreko Erregelamendua aldatzeko proposamena. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2019ko otsailaren 28ko eguer-**

diko hamabiak arte luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2019ko urtarrilaren 23ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2019ko martxoaren 5eko**

eguerdiko hamabiak arte luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2019ko otsailaren 1eko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko otsailaren 14an egindako bileran, erabaki zuen eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Foru Lege proposamen hori Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain

Bai talde parlamentarioak eta Ezkerreko Euzkera foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten, eta 2019ko urtarrilaren 17ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Nafarroan lagun egiteko animaliak babesteari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko otsailaren 14an egindako bileran, erabaki zuen Nafarroan lagun egiteko animaliak babesteari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Foru Lege proposamen hori Geroa Bai, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek eta

Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten, eta 2019ko urtarrilaren 25eko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2019ko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioak eta Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten, eta 2019ko urtarrilaren 17ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politiko-

ko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko Foru Lege proposamena presako prozeduraz izapidetu dadin.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **zortzi egun balioduneko epe bat hasiko da, 2019ko martxoaren 4ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Nafarroan lagun egiteko animaliak babesteari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2019ko otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroan lagun egiteko animaliak babesteari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Geroa Bai, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek eta Ezkerreko Alderdi Sozialista talde parlamentarioen elkarteak aurkeztu zuten, eta 2019ko urtarriaren 25eko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroan lagun egiteko animaliak babesteari buruzko Foru Lege proposamena presako prozeduraz izapidetu dadin.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **zortzi egun baliouduneko epe bat hasiko da, 2019ko martxoaren 4ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarioen elkarteek eta foru parlamentarioek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gida bat ezar dezan, arauak eta legeak haurrengan daukaten inpaktuaren ebaluazio-sistema erraztekoa.

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak, 2019ko otsailaren 19an egindako bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gida bat ezar dezan, arauak eta legeak haurrengan daukaten inpaktuaren ebaluazio-sistema erraztekoa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Gida bat ezar dezan arauak eta legeak haurrengan daukaten inpaktuaren ebaluazio-sistema

errazteko, nahi gabeko eragin negatiboak prebenitzeko eta positiboak bultzatzeko.

– Aldian aldiko behaketa-saioak egiteko sistema bat ezar dezan, bai eta araudiak haurren eskubideetan nahiz ongizatean daukan inpaktuaren ebaluazio-analisi bat ere.

– Gizartearen sektore zabalen, familien eta haurren partaidetza lor dezan. Berma dezan neska-mutikoak kontuan hartuak izatea politikak eta arauak prestatzeko eta taxutzeko prozesuan.

– Txosten bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitateko arau eta legeak haurrengan daukaten inpaktuari buruz”.

Iruñean, 2019ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Hondakinen Partzuergoak 2015etik gaur arte izandako egoera ekonomiko finantzarioaren bilakaerari eta etorkizunean jarraitzeko edo desagertzeko aurreikuspenari buruzkoa.*MARIANO HERRERO IBÁÑEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mariano Herrero Ibáñez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Hondakinen Partzuergoak 2015etik gaur arte izandako egoera ekonomiko finantzarioaren bilakaerari eta etorkizunean jarraitzeko edo desagertzeko aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mariano Herrero Ibáñez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Hondakinen Partzuergoaren 2015etik honako egoera ekonomiko finantzarioak zer bilakaera izan du, zein da 2018ko abenduaren 31ko egoera eta zer aurreikuspen darabilzue etorkizunean jarraitzeari edo desagertzeari begira?

Iruñean, 2019ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Mariano Herrero Ibañez

Galdera, Dia enpresaren Nafarroako plantillako lanpostuak mantentzeko eginen diren zuzemenei buruzkoa.*MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Dia enpresaren Nafarroako plantillako

lanpostuak mantentzeko eginen diren zuzemenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Dia enpresak iragarri du plantilla-doitze gogorra eginen duela. Dia enpresak 279 langile ditu Nafarroan (horietako gehienak, emakumeak). Nafarroako Gobernuak zer eginen du enpresa premiatzeko Nafarroako lanpostuak mantentzen?

Iruñean, 2019ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, jakiteko ea zertan den erabaki honen betetze-egoera: Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat egin dezan "Tasa arrosa" deiturikoak daukan eraginari.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea zertan den erabaki honen betetze-egoera: Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat egin dezan "Tasa arrosa" deiturikoak daukan eraginari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak bartzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak honako erabaki hau onetsi zuen 2015eko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkuran: Nafarroako Gobernua premiatzen zuena txosten bat presta zezan "Tasa arrosa" deiturikoa egoteari, haren norainokoari eta emakumezko kontsumitzaileen eskubideetan duen eraginari buruz. Zertan da erabaki hori?

Iruñean, 2019ko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako Fakultatea ezartzeari buruz Osasuneko ministroak egindako adierazpenei buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako Fakultatea ezartzeari buruz Osasuneko ministroak egindako adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Koldo Martínez Urionabarrenetxeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi elkarriketa batean, Osasuneko ministro María Luisa Carcedok adierazi zuen bere ustez ez dagoela zertan jarri Medikuntzako fakultate bat Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

Iritzi horrek gizartean eragin duen kezka ikusita, honako hau jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du adierazpen horiei buruz?

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, Nafarroaren merkataritza-balantzan, bertako enpresetan nahiz horien esportazioetan Brexitak izanen dituen ondorioak leuntzeko neurriei buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroaren merkataritza-balantzan, bertako enpresetan nahiz horien esportazioetan Brexitak izanen dituen ondorioak leuntzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Guzmán Garmendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Garpén Ekonomikorako kontseilari eta Nafarroako Gobernuko lehendakariorde denari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Estatistika Institutuaren azken oharrak eskaintzen dituen datuen arabera, Nafarroako esportazioen laugarren hartzailea da Erresuma Batua. 2018ko azaroan 411 milioi euroko metatua zeukan, eta foru erkidegoarekiko merkataritza-saldoa 303 milioikoa zen gure alde.

2019ko martxoaren 29an, lehenago akordiorik ez badago, Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteko epea bukatzen da, eta hortik hel liteke 'Brexit gogorra' delakoa, ondorio larriak lituzkeena merkataritza britaniarrarentzat eta, ondorioz, haren bazkideentzat, Nafarroa barne.

Nafarroako Gobernuak zer neurri ari da hartzen Brexitak Nafarroaren merkataritza-balan-

tzan, bertako enpresetan nahiz horien esportazioetan izan litzakeen ondorioak ahal den neurrian leuntzeko?

Iruñean, 2019ko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, 2019-2020 ikasturterako Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eta Lehen Hezkuntzan aurrematrikula egiteko epetik heldu diren datuei eta horien balorazioari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, 2019-2020 ikasturterako Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eta Lehen Hezkuntzan aurrematrikula egiteko epetik heldu diren datuei eta horien balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

– Zeintzuk dira, sareen eta hizkuntza-ereduen arabera, 2019-2020 ikasturterako Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eta Lehen Hezkuntzan aurrematrikula egiteko epetik heldu diren datuak eta horiei buruz zer balorazio egiten du Hezkuntzak Departamentuak?

Corellan, 2019ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, administrazioan euskarak duen erabilerari eta eskariari buruzkoa eta herritar guztiak administrazioan berdintasunez sartzeari begira diren mugei eta onetsitako hizkuntza planak funtzionarioen eskubideak ustez urratzeari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, administrazioan euskarak duen erabilerari eta eskariari buruzkoa eta herritar guztiak administrazioan berdintasunez sartzeari begira diren mugei eta onetsitako hizkuntza planak funtzionarioen eskubideak ustez urratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun diezaion:

Zure ustez, gaur egun euskarak duen erabilera eta Administrazioan duen eskaria bat al datoz herritar guztiak administrazioan berdintasunez sartzeari begira diren mugekin eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak onetsitako hizkuntza planak funtzionarioen eskubideak ustez urratzearekin?

Iruñean, 2019ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin

Galdera, Musikako eta arte eszenikoetako katedradunen kidegoan sartzeko oposizio-deialdiaren balorazioari buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, Musikako eta arte eszenikoetako katedradunen kidegoan sartzeko oposizio-deialdiaren balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Hezkuntzako kontseilari zaren aldetik, zer balorazio egiten duzu musikako eta arte eszenikoetako katedradunen kidegoan sartzeko oposizio-deialdia dela-eta?

Iruñean, 2019ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Navarplumako enpresa batzordeak eskatutakoari dagokionez egindako edo aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkeztutako galdera, Navarplumako enpresa batzordeak eskatutakoari dagokionez egindako edo aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak otsailaren 21eko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Orain dela gutxi Navarplumako enpresa batzordea etorri zen Parlamentura, eta bizi duten egoera azaldu ziguten.

Lan-bilkura horretan bi eskari egin zituzten. Alde batetik, Nafarroako Gobernuari eskatu zioten bitartekotza egin dezan enpresaren zuzendari-tzaren aitzinean, konponbide batera heltzeko. Eta beste alde batetik, enpresek jasotzen dituzten laguntzen gaineko kontrol-mekanismoak ezagutzearen eta aplikatzearen beharra azpimarratu zuten, lan-arloko araudia betetzen dutela bermatzeko.

Gobernuari galdetzen diogu ea zer jarduketa egin duen edo egingen duen langileek eskatutakoari dagokionez.

Iruñean, 2019ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

Galdera, etxebizitza eskuratzeko EmanZipa eta DaVid programei buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, etxebizitza eskuratzeko EmanZipa eta DaVid programei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentariaren elkar-
teko eledun José Miguel Nuin Moreno jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Eskubide Sozialetako kontseilariak heldu den otsailaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Iragan abenduaren 20an, Nafarroan etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duen 28/2018 Foru Legea onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak.

Lege horren bidez etxebizitza eskuratzeko EmanZipa eta DaVid programak onetsi ziren, zeinak 2019ko urtarrilaren 1ean jarri baitziren abian.

– Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du etxebizitza eskuratzeko EmanZipa eta DaVid programen abiadari buruz eta zer aurreikuspen darabil etorkizuneko garapenari buruz?

Iruñean, 2019ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, jakiteko ea egia ote den Nafarroako Segurtasun Eskolak Olatz-Subitzan (Galar Zendea) –Bocamina alderdian– erositako instalazioei buruz hedabide batek argitaratu duena.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko ea egia ote den Nafarroako Segurtasun Eskolak Olatz-Subitzan (Galar Zendea) –Bocamina alderdian– erositako instalazioei buruz hedabide batek argitaratu duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak Lehendakari-
tzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariari zuzendutako gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2019ko otsailaren 21ean egin beharreko kontroleko Osoko Bilkuran tramitatzeko:

Tokiko hedabide batek argitaratutakoaren arabera, UPNk gidatutako Nafarroako Gobernuak 360.000 euro gastatu zituen 1999an Olatz-Subitzako (Galar Zendea) instalazioetan –Bocamina alderdian–, suhiltzaileei eta polizia prestakuntza emateko.

Halere, baldintza egokirik ezak eta irekitzeko nahiz jarduteko lizentziarik ezak, bai eta 2011tik aitzina Administrazioak instalazioak erabili ez izanak eta utzi izanak ere, eragin zuten instalazio guztiak eraistea legegintzaldi honetan.

Instalazioen aurri-egoeraren ondorioz, Nafarroako Gobernuak eraikinak botatzeko eta ingurua saneatzeko kontratua lizitatzeari ekin zion 2017an, eta 63.214 euroan kontratatu zuen hori guztia.

Ez dakigu zer egunetatik aitzina erabaki zen Su-itzaltze Zerbitzuko langileen praktika horiek Cordovillako parkean egitea, ezta instalazio horietako esperientzia zein izan den ere.

Hori dela-eta, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dugu:

Egia al da Nafarroako Segurtasun Eskolak Olatz-Subitzako (Galar Zendea) instalazioetan – Bocamina alderdian–, suhiltzaileei eta poliziaiei prestakuntza emateko erositako instalazioei buruz hedabide batek argitaratu duena, eta hori izan al da praktika horiek Cordovillako parkean egitea une jakin batean erabaki izanaren arrazoia?

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, heldu den ikasturterako Haur eta Lehen Hezkuntzako aurrematrikulazio-eskabideei dagokienez ezagutu diren behin-behineko datuei buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, heldu den ikasturterako Haur eta Lehen Hezkuntzako aurrematrikulazio-eskabideei dagokienez ezagutu diren behin-behineko datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako María Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, Gobernuko lehendakariak otsailaren 21eko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Nola ikusten dituzu heldu den ikasturterako Haur eta Lehen Hezkuntzako aurrematrikulazio-eskabideei dagokienez ezagutu diren behin-behineko datuak?

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, jakiteko ea zer aurreikuspen darabilen Gobernuak hezkuntza eta osasun departamentuetako plantillen hazkundeari eta egonkortasunari dagokienez.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko ea zer aurreikuspen darabilen Gobernuak hezkuntza eta osasun departamentuetako plantillen hazkundeari eta egonkortasunari dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarte-ko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko hona-

ko galdera hau egin du, Nafarroako Gobernu-ko lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Aurreko legegintzaldiko murrizketek eragin handia izan zuten osasunaren nahiz hezkuntzaren arloko zerbitzu publikoetan. PPren Gobernuaren ordezte-tasak eta iraunkortasun-neurriek plantillak mehetzea eta lanpostuen behin-behinekotasuna areagotzea ekarri zuten. Egoera neurri handi batean zuzendu bada ere, asko dago egiteko.

Bestalde, herritarren premia berriek gaixotasunaren prebentzioan eta osasunaren sustapenean oinarritutako lanbide-profil berriak eskatzen dituzte.

Ezinbestekoa da, hortaz, Nafarroako hezkuntzaren eta osasunaren arloko sistema publikoak sendotzen jarraitzea.

Gobernuak zer aurreikuspen darabil hezkuntza eta osasun departamentuetako plantillen hazkundeari eta egonkortasunari dagokienez?

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, ikastetxeetan Skolae programa ematen den ordutegiaz gurasoei informatzeari uko egiteari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ikastetxeetan Skolae programa ema-

ten den ordutegiaz gurasoei informatzeari uko egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Belrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure departamentuak uko egin al dio gurasoei beren seme-alabak doazen ikastetxeetan Skolae programa ematen den ordutegiaz informatzeari?

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Belrán Villalba

Galdera, jakiteko ea Osasuneko kontseilariak aurreikusten ote duen sendagileei entzutea edo haiekin biltzea.

SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko ea Osasuneko kontseilariak aurreikusten ote duen sendagileei entzutea edo haiekin biltzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Sergio Sayas López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilari Fernando Domínguezek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Osasuneko kontseilariak aurreikusita al dauka sendagileei noizbait entzutea edo haiekin biltzea?

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

Galdera, Nafarroako Gobernuaren liburutegiek 2018ko udan izan duten ordutegiari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Gobernuaren liburutegiek 2018ko udan izan duten ordutegiari buruz Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkezturiko galdera erretiratu duela. Galdera 2018ko irailaren 25eko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko legelari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.

Gainditu duten izangaien zerrenda

Ikusita Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko legelari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdiko kalifikazio-epaimahaiak otsailaren 11n igorri duen zerrenda, azterketa gainditu duten izangaiak puntuazioaren arabera ordenatzen dituen a –deialdia Kontuen Ganberako lehendakariaren 2018ko azaroaren 6ko ebazpenaren bidez onetsi zen eta 2018ko azaroaren 15eko 138. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 221. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, deialdiko 8. oinarriaren 1. apartatuan ezarritakoarekin bat, bidezkoa da zerrenda hori argitaratzea. Horrenbestez, lehendakaritza honek, bere ahalmen eta eskumenak erabiliz,

ERABAKI DU:

Lehena.- Jasotzat ematea deialdiko kalifikazio-epaimahaiak igorritako zerrenda, aipatu lehiaketa gainditu duten izangaiak puntuazioaren arabera ordenatzen dituen a. Hona zerrenda hori:

- | | |
|----------------------------------|-------------|
| 1.- Contreras López, José | 50,31 puntu |
| 2.- Sebastián Labayen, Ildefonso | 47,60 puntu |

Bigarrena.- Zerrenda hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Erakundearen web orrian argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2019ko otsailaren 14an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria:
Asunción Olaechea Estanga

Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioko bi patronatukide izendatzea.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko otsailaren 14an egindako bileran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“1. Nafarroako Parlamentuak proposaturiko bi pertsona hauek Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioko patronatukide izendatzea:

– Mikel Gotzon Saralegi Otsakar jauna.

– Gabriel Hualde Urralburu jauna.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 2019ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Legebiltzarreko Erregelamendua aldatzeko proposamena.

OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko otsailaren 14an, erabaki du aintzat ez hartzea Legebiltzarreko Erregelamendua aldatzeko proposamena, zeina Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru par-

lamentarien elkarteak aurkeztu baitzuten eta 2019ko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2019ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza
